

>> URRUSULAKO KONTUAK (IX)

Eskolako gorabeherak



Eliza gaiñeko lehenengo pisuko gela batian eguen eskolia, eta auzotar guztiak han ikasten euen hamar edo hamabi urtera arte.

Roberto Altuna

Azuak baeukan be bere eskolia, orainddiok hantxe daguen eliza gaiñeko lehenengo pisuko gela batian, eta auzotar guztiak han ikasten euen hamar edo hamabi urtera arte. Gero, mutikuak, haundixak egitten ziranian, herrira, unibersidade zaharrian egozen maristetara etorten ziran urte pare bat-edo egittera. Neskak, berriz, mojetara edo lanera: umezain, kria-da edo taillerren batera faten ziran.

Orduko eskoliarekin danak akordaitten dira: “eskolan gure garaiko maisuak Don Ziriako eta ‘Maistrotxo’ izan ziran, hoge bat neskatilla-mutiko ibiltten giñan eskolan danok batera nahasi. Nere garaiko maisua Don Ziriako izan zuan eta eskolia euskera hutsian emuten xuan, baiña gero izan zittuan kontuak, Urrusulatik maristetara etorri eta han, berriz, dana erderaz eta ezin tautik be entendi!! Auzo-saliaren azpitan eguen lokaltxo baten bizi zan ‘Maistrotxo’ maisua, auzo-salako zoruan eguen tranpilla batetik sartzen zan bertara eta han egitten eben bere bizimodua, lo eta dana”, kontau dau Jabier Larreak.

Eta ondorengiak erdera hutsian erakutsi oskuein. Leongo, Avilako eta Galiziako maistra batzuk be pasau ziran Urrusulatik, eta beste batzuk be bai, guztira zazpi bat maistra, gehixenak urte pare baterako etorri eta Garaikuan egoten ziran

apopillo. ‘Maistrotxok’ erderaz egitten eben eta honela esaten gotsan: “*maestro tengo que salir afuera*”, eta harek erantzun: “*¡Envidia puñetera!*”... Ondo astinketan gindduen; orain balitza...! Leongo Nieves izeneko maistra bat Madalenako eskolan egon zan geruago. Euskeria Don Ziriakok bakarrik ibilli eben eskolan, beste danak erdera hutsian eta euskeria debekauta eguen eskola barruan; hori egixa bada be, ez oskuen zigorrik jarten geure artian euskeraz egittiarren. Erderaz irakurten geben eta ezkeben jakitten irakurritakuak zer esan gura eben. Gure arreba Terek erderaz ikasi eben guardazibillekin. Euren etxetik pasaitterunzkuan egonaldixak egitten zitxuain barriketan eta halaxe, berez, ikasi eben erderaz”, jarraitu dau Jabierrek.

Barrenetxeko Markos Barrenak, berriz, gaixa mentauta hauxe kontau eben:

“Abadietan Don Ziriako ezagutu ñuan nik gehixen, eta berak esaten xuan neu nintzala berak lehenengo bautizautako umia. Denpora hartan hemen egonalditxo bat egin eta Aldabara-edo, hor, Tolosa aldera, bialdu xuain; gero berriz etorri zuan Urrusulara eta egin zitzuan hemen beste hamabi bat urte; bere arrebia eta famelixia be asko egoten zittuan berarekin.

Abadia eta maisua pagau egitten zittuan; abadiari eruaten xakuan olatak (opil mehia) egun seiñalau batzuetan eta garixa eta artua be bai. Maisuari, berriz, auzuak diru apurren bat eta garixa eta artua etxe bakoitzetik faten ziran neskatilla-mutikuen eta aurretik onartutako kantidadien erabera: etxe batetik bat faten bazan: bi imillaun; bi baebiltzen: hiru imillaun, eta toperaiño bete arte... Maisuak eskola onduan xakuan oillategi txiki bat, eta han eukitten zitzuan oilluak, arrautzetarako, eta oillaskuak, berriz, gizendu eta saltzeko. Oillasko mordotxua hazten zitzuan.

Don Ziriakok alde egin ondoren, beste abade gazte bat etorri zuan, Jose Maria Landa, eta honen ostian agustiñuak eta fraidiak, baiña honaik domeketan etorten zittuan, emuten zitzuain bi meza edo orduan izaten ziranak, eta gero auzoko baserriren baten bazkaldu eta faten zittuan. Honaik etzittuan Urrusulan bizi izan.

Eskolia Urrusulan bertan Domingo izeneko maisuarekin ikasittakua xakuagu, eta gero beste bi urtetan Oñatiko maristetan be bai, baiña udabarrixan, mariatz aldera, aittak eskolatik etara eta artuak ereittek, garixak jaso, bedarrak igartu eta uda eta udazkeneko lanak egitteko, mutikuak etxian geldiketan gintzuan, eta Gabonak aldera, garixak erein ondoren, barriro eskolara, maristetara. Gure kursua motza izaten zuan, lau hillabete ingurukua. Kursua ez hasi ez akabo izaten zuan guria. Erderaz zan eskolia eta gu erdi euskeraz-erdi erderaz ibiltten gintzuan. Maristetan dana erderaz egitten zuan eta guk erderaz hala-hala, baiña entendi bai, entenditten giñuan. Urrusulako gure kinttako bostetik hiru ibilli gintzuan maristetan. Okerrena izaten zuan okerkerixaren bat egin ezker, bostetan barruan geldittu bihar, eta, negua bazan, gero Urrusulara fateko illundu eta bizikletiak argirik ez. Olateraiño zelabait fan bihar izaten gintzuan. Olaten Larrearenian bizikletia itzi eta etxera oiñez faten gintzuan. Larrearenian xakuain leku bat sukaldian, hauxelako bat, onduan ogixa-eta egitten euena eta han auzo daneko bizikletak izten gitxuan. Artian etxegozan bizikleta asko, igual etxe danetan be ez, geruago, motorrak-eta hasi ziranian eta bizikletia pittin bat gehittu edo aumentau zanian, auzuak egin xuan beste lokal edo garaje bat auzoko bizikletak eta motorrak izteko larreatarren etxetik aparte. Orduan, etxietarako burdibiak oso txarrak zittuan bizikletan eta motorrian ibiltteko”.

"Euskeria Don Ziriakok bakarrik ibilli eben eskolan, beste danak erdara hutsian eta euskeria debekauta eguen eskola barruan"

"Abadiari eruaten xakuan olatak egun seiñalau batzuetan, eta garixa eta artua be bai. Maisuari, berriz, auzuak diru apurren bat eta garixa eta artua, etxe bakoitzetik faten ziran neskatilla-mutikuen erabera"

"Gure kursua motza izaten zuan, lau hillabete ingurukua. Kursua ez hasi ez akabo izaten zuan guria. Maristetan dana erderaz egitten zuan eta guk erderaz hala-hala, baiña entendi bai, entenditten giñuan"

>> URRUSULAKO KONTUAK (X)

Olateko zentralaren historia



Olateko zentralaren eraikiña. R. ALTUNA

> ROBERTO ALTUNA

Oñatik uraren aprobetxamenduarekin izan dauen harremana aspalditik dator. Izan be, erreken onduan, XIV-XV. gizalditatik hasitta errotak ifiñi ziran lehenengo, eta geruago, XIX.etik aurrera, harein ubidiak eta malatuak aprobetxauaz turbinak. Hala, aurreneko zentral hidroelektrikuak martxan ifiñi ziran.

Egin degixogun, bada, errepaso bat historiari Olateko zentralaren une inportantienak ezaguketako:

1893an *Biain y Cía*-k, Araotz errekiaren urak aprobetxauaz, herriko lehenengo arginddar enpresia sortu eben Oñatin. Hipolito Biain, Juan Zubia eta Enrique Uriarte oñatiarrak izan ziran eragillik; euren asmua herriko etxe eta kalieta-
ra argindarra ekartia izan zan. Gipuzkoako Merkataritza Erregistraren datuen erabera, probintzian sortutako bigarrena izan zan Donostiako "Compañía eléctrica de San Sebastián"en ondoren.

Olateko zentralari ekitteko *Biain y Cía* enpresiak *Lamiategi-Goiko* errotiaren azpiegitturia aprobetxau eben, neurri haundi batian, Araotz errekiaren inddarra ebalteko eukan kontzesiñua balixauaz.

1906ko bagillaren (ekaina) 22xan *La Cerrajera Guipuzcoana* (CG) eta *Vergarajauregi, Resusta y Compañía* (VRC) enpresen bat egittetik *Unión Cerrajera de Mondragón* (UCEM) fabrikia sortu zan Mondraguen. Bere denporan oso enpresa inportantia izan zan, eta bere jarduerarako inddar elektriko premiña haundixa eukanez, *Biain y Cía*-k bereganatu eben berarendako lain inddar elektriku sortzeko asmuagaz; modu horretan, *Centrales Hidroeléctricas de Unión Cerrajera* izeneko enpresa eratu eben. Oñatiko urak sortutako argindarra, gaiñera, Bergarako premiñai erantzuteko be ebaliziran.

1921ian Olan eta Urdantegietako zentralen produkziñua nahikua etzala eta, Oñatiko Udalak akordio bat siñatu eben Union Cerrajerarekin Saltos de Olate zentralaren energia sobrantia aprobetxaitteko. Orduan egin zan gaur egungo egoitza nagusixa. Bertan Zapata, Urdaola, Ubao (Tokillo) eta Jaturabeko produkziñua bateratu zan. UC akronimua (Union Cerrajera) orainddiok be ikusten da zentralaren hornidura.

1925ian Oñatiko Udalak arginddar horniduria bereganaketako espedientia abixau, eta 1927xan gauzatu eben. Erabagi horrekin Udalak Union Cerrajera instalaziñuen zati batez desjabetu eta horniduriaren monopolixua eskuratu eben.



2024an eta ondorenguetan, sare hidroelektriko honen azpiegitura guztiak eguneraketako, eta, bihar dan kasuetan barrizaitteko, -Aitzgaiñeko kanala, Jaturabeko presia eta abar- erabagi formala hartuko da edo karua dan aitzakixiaz edota gaur eguneko teknologia errentagarrixaguak dirala arrazoituta, bertan behera jare eta hiltten itziko dira?

>> URRUSULAKO KONTUAK (XI)

Olateko zentralaren gaiñeko lanak



Ubao aldia Aloña azpizan. ROBERTO. ALTUNA

> ROBERTO ALTUNA

Haitzaren alde bateko zein besteko auzuetako makiña bat seme, hau da, urrusuldar eta araoztar asko ibilli ziran Olateko zentralian eta haren azpiegittura danak egitten; urrusuldar batzuen izenak bakarrik aittaketiarren, Barrenetxe-ko Markos Barrenaren aitta eta Errotako Bittoriano eta Sinforoso Madinabeitia aitta-semiak aittatuko dittugu. Sasue ha mentauta, kontu honeitxek kontau zittuan Sinforosok Ahotsak.eus-erako egin otsain alkarrizketan:

“Nere mutiko denporan egingo zuan Urrusulako transformatoria. Nik zortzi bat urte-edo igual euko nitxuan, eta Ubaotik bota bihar euela. Ubaotik xaguan linea bat Olate-

ra, eta illunkaran seietan-edo, ordua ifiñitta, eta jentia ikustera fan ei zuan. Migel tabernari, Migel Igartua, ha aittajuna, semia be ni baiño zaharragua zuan, eta Gorordoko zera, argixa gorrixa etorriko zalakuan ikustera fanda egon zirala, Uribarrittik pillia.

Ubaotik, Ubaotik argixa etorriko zala? Bai, Ubaotik.

Baiña kablian ikusiko zala pentsaitten ebein? Kablian ikusi egingo ete zan argixori etorten, eta harek argi egingo ete eben-edo, zerbait esaten xuan harek, bai!

Ta horixe, geratuko ziran kabliari begira, ezta? Kabliari begira denporalerako, eta seietan, honezkero etorri bihar zuan, ba, etorri bihar zuan! Eta aspertu ziranian, fan ei zittuan etxera, eta etxian argixa dago!”



Ezkerrian, Saratxoko bokia Araotz aldetik, itxitta. Eskuman, Saratxoko ubidiaren bokia Urrusula aldetik . R. ALTUNA

Olatera ura zenbat lekutatik datorren preguntauta, hauxe kontau eben Sinforosok:

"Bat Aitzgain, deposittotik, beste bat Saratxo. Eta Saratxoko tunelak xakok, esaten dauenez, zortzi kilometro, haitez bizixaren azpittik, eta Lafitte ei zuan ingles, e, frantses bat, injinerua, ideau ebena alde bittatik atakaittia eta..."

Zuluori? Zuluori, kobiori, uren pasuori, eta zuzen bai, baiña hau hamar zentimetro altuago.

Alde bata? Alde bata. Entzuten ei txuin deskargaak, beste zerak, entzuten dittuk, entzuten dittuk! Bai, zerbait entzuten txuat! Joño, eta ei xaguan mutil bat..., pistoletia joten zuan porra batekin eta albo bittara joten ei xuan. Konparaziño baterako, tunela igual uno veinte-edo, eta bi pistoletia, buru bat hemen eta beste bat hemen, eta harunzkotan hau eta honunzkotan hau, harunzkotan hau eta honunzkotan hau. Bederatzi erriel, dos veinticinco irabazten ei xuan harek egunian, espezialistia, artistia zalako, eta bestiak pezeta bi.

Baiña, zera, pistoletia jote hori zertarako ibilli zan? Hori tirua egitteko, tirua. Sartzen zuan. Pistoletia egitten zuan, kustiñua hola ifiñi, behetik gora antzian eta...e..

"Nere mutiko denporan, argixa Ubaotik bota bihar euela zabaldu zan. Ubaotik xaguan linea bat Olatera, eta illunkaran, seietan-edo, ordua ifnitta, eta jentia ikustera fan ei zuan, argixa gorrixa etorriko zalakuan ikustera fanda... Aspertu ziranian, fan zittuan etxera, eta etxian argixa!"

Orduan, tunelok etziran parera etorri orduan... Pare-parian, pare-parian.

Hamar zentimetro. Hamar zentimetro harunzkua bakarrik, eta, bueno, milagrua! Ta milagrua, bai, harek beste jakin ezker!"

<https://ahotsak.eus/onati/hizlariak/sinforoso-madinabeitia-onate/>

>> URRUSULAKO KONTUAK (eta XII)

ABERASTU

ITTEN atal honetako azkeneko hamaika numeruetan Urrusula auzoko kontuen gaiñian jardun dogu. Ikusi dagigun, bada, auzo hontaz zenbat ikasi dozun. Ia gauza zarien zuzen erantzuteko ondorengo galderai.



1) Zenbat baserri dagoz Urrusulan?

- a.- 5
- b.- 15
- c.- 25

2) Gaurko egunian zenbat jente dago erroldauta Urrusulan?

- a.- 6
- b.- 16
- c.- 26

3) Urrusulatik pasaitten diran hiru errekek nora eruaten dittue euren urak?

- a.- Arantzazu errekkara
- b.- Ubao errekkara
- c.-Saratxo errekkara

4) 1960 neguko eurittiak eragindako lurrikarak zein bi baserri mobiu, eta, azkenian, hustu eragin zittuan?

- a.- Antxitena eta Garaikua
- b.- Osinaga eta Aristegi
- c.- Erostarbe eta Hagiñalde [Áialde]

5) Zer da estegurra?

- a.- Olaazixak egitteko ebalten dan egurra
- b.- Garixa joteko ebalten zan egurra
- c.- Burdixaren kargia estuketako ebalten dan egurra

6) Bi edo hiru kapako mezia egon dala entzun ezker, zer entendiuko zeuke?

- a.- Bi edo hiru abadek zebebrautako entierroko mezia egon dala
- b.- Bi edo hiru egunetan egitten zan mezia esan gura dau
- c.- Jai haundittako meziari esaten xako

7) Puxetarrixa zein beste izenagaz ezaguketan da Urrusulan?

- a.- Harrixa
- b.- Albergia
- c.- Puxetela

8) Zer da egurzaleria?

- a.- Abadiaren etxera urte baten baserri batzuk egurra eta beste batzuk garixa eruatia, eta hurrenguan bestaldera, azkenian danak bardin eruateko
- b.- Auzolanian egurra batzeia basuan
- c.- Basuan batutako egurra subastan saltzeia

9) Zer da imillauna?

- a.- Aliak eta bestelakuak pisaitteko ebalten zan bost kiloko neurrixa
- b.- Aliak eta bestelakuak pisaitteko ebalten zan lau kiloko neurrixa
- c.- Aliak eta bestelakuak pisaitteko ebalten zan hiru kiloko neurrixa

10) Zer da imiñia?

- a.- Batez be aliak pisaitteko ebalten zan sei kiloko neurrixa
- b.- Batez be aliak pisaitteko ebalten zan hamabi kiloko neurrixa
- c.- Batez be aliak pisaitteko ebalten zan hemezortzi kiloko neurrixa

11) Urrusulan zeri esateko xako suertia?

- a.- Kartetan joku danak irabaztiari.
- b.- Haizpeian daguen zelai estu eta oso malkartsuari .
- c.- Gari urte onari.

12) Haizpeia berbiaren beste bi sinonimo emun

- a.- Haitzondua eta haitz-nardia
- b.- Aitzgain eta Argarate
- c.- Atxulo eta Itsusabeko bentania

13) Zer da uratsa?

- a.- Haitzondotik urteten dauen ur argi-argixa
- b.- Metal-ura
- c.- Arrautza ustelen usaiña dakon ur sulfurosua.

>> ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA

Fidelen despedidia

 **ROBERTO ALTUNA**

Orainguan, orain dala berrogeita bost urteko fotografixia dakargu; bertan hogeitaz inguruko herriko gazte kuadrilla bat ageri xaku, gehixenak Kale Zaharrekuak, San Juan kalekuak, Lizaur kalekuak edota inguruetak. Une hartan lagun kuadrillak ez eukaiñ izen jakiñik, baiña handik gutxira beteranuen herriko futbol txapelketia martxan jarri zanian, futbol talde edo ekipo bakoitzari bere izena emun xakon eta hortik gero kuadrilliak futbol taldiaren izena hartzeia. Gure kasuan, futbol taldiari 'lokotxak' jartia pentsau euen, eta hola bixak izen horrekin ezaguketan hasi ziran bai futbol taldia bai kuadrillia. Lokotx,-a berbiak artaburu zurittua edo aletua esan gura dau, gure herrixan 'artákaskara, -ia' izena ezagunagua bada be.

Fotografixia 1979ko garagarillaren (uztaillaren) 13an etarata dago Kale Barrixa goixenian, Txoriñeko eta Kaioneko kantalak baiño goratzuago, hain justu be. Kuadrillako mutil danak juerga antzian ikusten dittugu, egun hartan Atzeko Kaleko 'Gure Leku' tabernan Fideleri egin xakon afari-despedidia egin aurretik; izan be, urte batzuk lehenago Fidel Oñatira etorri zan Pakistanetik bere herriko beste gizakume-kuadrilla batekin, eta, lokotxatarrekin amestadia egin, eta, azkenian, kuadrillakua egin zan. Hemen urtetxo batzuk obretan lanian pasau ostian, fetxa horreittan bere herrira oian lehenengo aldiz, gehixago bueltauko ete zan ez ekixela. Atzenian, baiña, bueltau egin zan, eta Oñatin bizitten jarraiketan dau gaur egunian be; baiña hori bai, Pakistango Panjab izeneko bere lurraldiarekin dakon loturia iñoiz eten barik.



Lokotxak kuadrillako hainbat lagun Fidelen despedida egunian

Hona hemen fotografixan ageri diranak:

Goiko illaratik hasitta, ezkerretik eskumara: *Imanol Arrazola, Juanje Anduaga, Iñaki Urzelai, Joxemari Zubia, Fidel Chohan bera, danon erdixan, Iñaki Etxeberria, Patxi Ugarte eta Juan Gordo* harutzatzuago, losa gaiñian.

Erdixan, makurtuta: *Juanjo Aia*stui, *Enrique Guridi* eta *Mikel Ugarte*.

Beherago: *Rafa Aranburu* eta *Joxe Urtaza*.

Eta behian jasarritta: *Aitor Azkune* eta *Jon Azpiazu*.

Gorantziak lokotxatar danoiri, eta urte askuan jarraitu degigula orduko umoriarekin!

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (I)

ARTASO (I)



Denpora bateko Artasoko trikuharrixaren arrastuak (Argk.: K. Zumalde)

Artasoko trikuharrixa

 ROBERTO ALTUNA

Badakizu zergatik Artaso? Artaso dago, barrankuaren edo amildegi, sakonuna, arro edo trokiaren beste aldian, Arantzazuren gain-gaiñian. Artaso jausi zanian, esan izan dot nik, Arantzazu jaiki zan. Artaso da zelaiune bat, hiru artzain-txabola edo, eta dolmen bat. Beheratuago, Gallerdi esaten xauen parajian, tumulu bat dago. Goixan, bostehun bat metrora, beste dolmen bat, Gallaurko dolmena.

Artaso gain horretatik bista zabal oso ederra dago. Arantzazu ikusten da batez be aurrez aurre. Oxigenau bihar izaten nebenian neure burua beste aire batzuekin, berriz be neuregana etorri bihar nebenetan, Artasoko tntorrera faten nintzan. Hor dolmena dago, harrixetan denpora zaharra erantsita. Isiltasuna dago Artason.

Eta hor, nire denporan tradiziño batzailla izanda nago ni Arantzazun, eta jakin neben San Bernardora erromerixan faten ziranian Arabara, hortik pasaiten zirala. Eta Artason jaten eueilla meriendan azken mokadua. Eta Artason egitten eueilla azken dantzaldixa. Ze etziran faten mezia entzutera bakarrik. Mezia entzun, erreza, dantza egin, dibertu pittin bat, alkar ikusi eta kontuak esan, gaztiak alkarrerri begixak lora-loran begiratu neska-mutillak, eta erromerixan etxera bueltau. Baserrittarrak, badakizu, kanpora doianian, eruan egitten dau zer jana. Bazkaitten euen eta hondarra gero meriendaitteko gordeten euen. Hondar hori azkenian Artason meriendaitten euen, dantza egin eta bakoitzak bere otara aldegin baiño lehen.

Hiru gizon bakarka. Bitoriano Gandiaga.

Joxe Azurmediren epilogotik hartuta eta moldauta.

Azalpenak:

San Bernardo eguna agustuaren 20xan, Arabako Aspuru ondoko Barrian ospaketan da.

Esan: *Bixar bazoiazei San Bernardora?*

Bai, bixar San Bernardo dakogu! Edo, hareik San Bernardo dakoi!

Araoztarrak faten ziran Usakoetxenetik gehixenak eta beste batzuk Artixatik.

Arantzazuarrak, berriz, Artasotik gora.

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (II)

ARTASO (II)



Denpora bateko Gallerdiko trikuharrixaren arrastuak (Argk.: K. Zumalde)

Gallerdiko tumulua

ROBERTO ALTUNA

Orduan Artaso, nere anima barruan, dolmena da, erromesen bidia da ... Erromesen bidia Arantzazurako be bai, Arabako erromesen parte haundi batena. XVII. gizaldixan ja Gamarrak eskribiu dau “y pasan, gutxi gorabehera, buruz, por el puerto que se llama Gallaur, que es contracción de gain-labur”, hori eztakit egixa izango ete dan. Dolmena eztau aittaketan, ez eben ezaguketan. Dolmen hori neuk topautakua da gaiñera. Eruan neben behin Juan San Martin eta “hau harri-pilla hau, zer da?” “Hori dolmena da”. Susmua aspaldittik neukan. “Eta beheko hori?” “Tumulua”. Nik, handik, distantzia batetik bistaraketan neben Arantzazu. Arantzazun egunero bizi nintzan. Egunero, egunero; egunero, egunero. Eta gauza batzuk egunero bizitten nittuan. Min batzuk. Oxigenaittera faten nintzan hara. Momentu bat libre egotera. Ikusle egotera, kanpotik.

*Artaso
lotan geldi
geratu zan
aspaldi
aurreko mendixan,
ta Arantzazu iratzarri
beste alderdixan.*

*Ta, bixen erdixan,
lehengo erreka bera
bere betiko doian
betiko abixan.*



Bitoriano Gandiaga

Euskadi bixak. Bat kristau aurrekua, Artaso; bestia ixixa Santutegixak sinbolizaitten dauen gaurkua. Bixak parez pare eta bixak bat egindda. Eta bixen erdixan erreka. Bizitza, bere betiko doian betiko abixan. Erreka hori justu Gallaurren sortzen da, Artasotik gora, goiko dolmenaren albu. “Gallaurtik behera / uren lasterra ...” Arantzazutik, Artason errefugiau gara.

*Hiru gizon bakarka. Bitoriano Gandiaga.
Joxe Azurmediren epilogotik hartuta eta moldauta.*

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (III)

Oñatiko baserriak eta auzuak



Uribarri auzoko hiru baserri: ezkerrekua, Azkarraga Haundixa; eta eskumakuak, Aingerukua eta Soldadukua. (Argazkizak: R. Altuna)

✍ ROBERTO ALTUNA

“Eta egixa zixuan harrosko harek. Soralezeko neskaak, Azkontegi, Artxubi, Goixenetxe, Baltzategi, Erostege, Txope, Urtiagain, Aingeru eta Azkarragakuak, danak gura euen euren gure mutil hau. Eta ez hurrekuak bakarrik, baita Araotz, Olabarrieta, Urrexola, Zubillaga, Garibai, Zañartu eta beste auzuetakuak be, ba, alderdi danetan baekixein Zabaletako Iñaxio Mari mutil eder, ospetsu eta etxe onekua zana. Hamaika neska gaztek begiratu otsan gustura, noizbaitteko aizkol jokuan, plazako buru eta agintari maittia moduan ikusi euenian”.

Txomin Agirrereren ‘Garoa’ nobelako zatixa moldautu.

>> SINONIMUAK

Zirkulu barruko berba horreik danak Euskal Herriko leku desbardiñetan jasota dagoz eta atxurrarekin lurra azal-azaletik garbittu, bedarra kendu, baiña lurra ikutu edo harrotu barik esan gura daue, hau da, lur azaltxua besterik ez kentzeia.

Honekin lotuta, baiña, gure galderia beste hau da: esangura bera dakoin berba honeittatik zein da Oñatin ebaltan dana eta zeregin horretarako Euskaltzaindiak be ontzat emun dauena?

Eta zela esaten xangu atxurkada bat joaz harroketan dan bedar eta guztiko lur pusketiari edo zohixari?



ERANTZUNAK: 1. ittaunaren erantzuna: zopizaartu edo zapizaartu
2. ittaunaren erantzuna: zopitta, zopitia / zopizar, zopizarra

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (IV)

BASERRIXA



Uribarri auzoko *Baltategi* baserrixa; bista osua ezkerrekaldian eta ateeta dana eskumakaldian. (Argazkixak: R. Altuna)

 **ROBERTO ALTUNA**

Gorordopeko zelaitxo baten, ira-meta haundi batzuen hurrian, soro eder aberatsaz inguratuta, bene-benetako patxaran eguen *Zabaleta* baserrixa. Bere albueta, amari gonetatik eusten dagozen umetxuak moduan, etxe nagusixari lotuta, bestetxo bi agiri ziran: bata ogi edo artua erretetako labia, bestia ganadu-janak gordeteko lekua; eta honeittatik ez urrin, zerbait mendi aldera eta beregain, neguan ardixak eukituko eillorra. Etxe nagusixaren aurrekaldetik, sarrerako ate gaiñian, lore eta usain gozoko bedarrez egindako bi sorta lihor ikusi nittuan, ohitura zaharrari jarraituaz San Juan goizian ifiñitakuak, esan nostañez; atiaren erdi-erdixan erantsitta, argizarizko kurtze txiki zapal bat, etxekuen kristautasuna erakutsi guran.

Leku harein barruan zer eguen jakin biharrik badago? Baserrittakuak badakixe, baiña ez itsas aldekuak: ezta, ba, hain gaizki etorriko honeindako hemen zerbait ifinttia.

Labe aldian etzan gauza haundirik: abar batzuk, ixixa erdi-erretako pala zatar bi, eta labe-ohia garbiketako ipiskixa. Ganadu-janen etxian, lastua eta bedar igar ugari, sapaixan; atxur, eskoba, sarda, urkilla, bolda, belaki, besabe, burdi, burtesi, orrazi, galga, eta uztarrixak lur gaiñian. Etxe nagusixan, sartu eta berihela, sukaldia, patxarazkua, euskal baserri danen modukua, etxebizitzarako eta lur langintzarako bihar ziran tresnaz beteta. Bertan egozen, su aurrian, zimitzezko jarleku apalak eta keiak eta urtiak leundu euen txiselu galanta, eta apaletan, suilla, murkua eta beste urontzi batzuk, lurrezko txalin zabalak, erretillu haundi sakonak, zurezko koillara baltzittuak, eta ogi, tremes edo artua eukituko otzaratxua; hantxe topaitten ziran, hormetatik behera esegitta, eltze, tupin, plater, talo-burdiña, burduntzi, burruntzali, danbolin eta kriseilluak; hantxe, bazter baten, beste atxur, laixa, hozbiko, sega eta iritixak, su-egur, azpantar, abarka-eta, soka zaharren laguntasunian; eta hantxe egon ohi ziran askotan tximinixa azpian, lurruntsu, gelaatzutik behera txintxiliz, zeziñiaren itxuran, baserri haretakuen azkiñeko busti eta lokatzaiaz zikindutakuak.

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako pasartia, moldautakua.

Berbategixa:

- **Beregain, ña** = libria, independentia, autonomia.
- **Sorta, ia** = eskukadia.
- **Kurtze txiki zapal bat** = kurtze txiki mehetxo bat
- **Ira-meta, -ia** = garo-metia, suatza.
- **Urkilla, -ia** = puntan urkilla (*horquilla*) dakon makillia, bedarrari bueltia emuteko ebaltan dana.
- **Belaki, -xa** = 1. esponjia. 2. lonazko oixala.
- **Besabe, -ia** = arbolaren adar oker eta sendua, batez be, paguarena.
- **Burdi, -xa** = gurdia (*carro, carreta*).
- **Burtesi, -xa** = burdixaren kaja, lehenguak hurritz makilakuak ziran.
- **Bolda, -ia** = goldea (*arado*).
- **Bedar igar, -ra** = belar iharra (*heno*).
- **Sapai, -xa** = kamaria (lastategia, belartegia). *Pajar, granero*.
- **Sarda, -ia** = sardea (*horca, tridente*).
- **(e)illor, -ra** = jeneralian basuan daguen itxabolia bedarra eta iria gordeteko.
- **Argizari, -xa** = *cera*.
- **Labe, ia** = *horno*
- **Labe-ohe, -ia** = labiaren zorua edo behia.
- **Ganadu-jan, -a** = ganaduari emuten xakon jana, normalian, bedarra.
- **Lasto, ua** = *paja*.
- **Ipiski, -xa** = isuskixa, illarrezko eskobia (*escoba de brezo*).
- **Galga, -ia** = frenua.
- **Uztarri, xa** = *yugo*.
- **Lur langintza, ia** = *agricultura (cultivo de la tierra)*.
- **Zumitz, -a** = *fleje*.
- **Txiselu, -a** = sukaldeko banku luzia eta fijua.
- **Suil, -la** = *herrada, tina, cántaro*.
- **Murko, -ua** = *botijo*.
- **Urontzi, xa** = *recipiente de agua; cantimplora*.
- **Txalin, -ña** = aixkomete egurrezko plater txikiña.
- **Erretillu, -a** = plater haundixa (*bandeja, fuente*)
- **Zurezko koillara, -ia** = egurrezko kutxaria (*cuchara de palo*)
- **Baltzittu, -a** = belztua (*ennegrecido, -a*)
- **Tremes, -a** = arto-uruna, gari-uruna (galuruna) eta azkarrixarekin egitten zan ogixa.
- **Otzara, -ia** = otarrea (*cesto, -a*).
- **Eltze, ia** = lapikoa (*cazuela*).
- **Tupin, -ña** = bi eskuleku dakon lurrezko ontzi ipurdi zabala.
- **Talo-burdiña, -ia** = talo-palia, hau da, talua erreteko palia.
- **Burduntzi, -xa** = *asador*.
- **Burruntzali, -xa** = *cazo*.



Ipiskixa edo isuskixa



Txiselua



Urkilla



Burduntzalixa



Bedar-metia edo suatza



Suilla

► BASERRIXA LANGAI

Itten ataleko artikulu hau osoketako, Donostiako San Telmo museuak baserriko tresnen inguruan egindako lan interesgarria aurkezten dotsuegu. Hainbat ariketa egitteko bi bersiño dittuen lan bat biribilddu dau: batetik, ikasliarena galderakin eta, bestetik, irakasliarena erantzunakin. Ondoko QR-en bidez ikusi ahal izango dittuzue bata zein bestia.



Ikasliaren gida



Irakasliaren gida

ITTEN BAT

>> LITERATURA TXATALAK (V)

Joanes artzaiña



✍ ROBERTO ALTUNA

Ha zan gizona ha!

Zazpi oin eta erdi bai luze, makal-zuraitzaren modura zuzen, pagorik senduena duin zabala, arte gogorra moduan tringo, korosti hezixaren antzera ximel.

Holakua zan Joanes nik ezagutu nebenian.

Senduak egozen orainddiok artzain zaharraren beso zaintsuak, azkarrak baiño azkarraguak bere oiñak, zintzuak bere bular-hauspuak.

Hirurogeita hamabi aldiz ikusi eben, Aloña mendiko hariztuittan, ostro berdian berriz jaixoten; baiña ez otsan eruango hemeretzi urteko mutil batek ez aizkol-jokuan, ez burdin astuna jaurtitten, ez mendixan gora edo ibarretan zihar atxintxika.

Kaiku haundi bat esne goizian jan, azpantarrez bernak estali eta makilla bat eskuan hartu ezker, prest eguen egun osuan, ariñena moduan, bihorren atzetik ibiltteko edo, neke askorik barik, ardi galdu gaixuaren billa gaba dana igaroteko.

Argixak ziran Joanesen begi gozuak. Ohittuta eguen Joanes zerura eta lurrera, gabaz eta egunez, arreta haundiz begiraketan, eta iñork baiño lehenago ikusiko eben, goi aldetik, hodei arteko arranuaren ibillera apaiña edo ixixa gizon danendako estalitta eguen izarraren kiñua, eta lurrian, lokatz bigunetako ganadu-oiñatza, bide ondolik fan ziran eperren aztarna, sasi mardularen ertzeko erbi-oin zapala, harkaitz zulueta hegazti harraparixen haabixia, eta han behe-behian agiri zan ulixa herriko erloju zahar eta illun samarra.

Erniak ziran Joanesen belarririk. Oso egiña eguen Joanes mendiko hots guztietara. Milla aldiz bai entzun zittuan, bakardadiaren erdixan jasarritta eguela, urriñeko justuixaren danbarraria, horeixaren burundaria, artzaiñaren diar luzia, aizkolarixaren aizkorakada neurtua; basaurdiaren arnasotsa, otsuaren alarua, aixaixaren zaunkia, bihorren irrintzixa, hontzaren ulua, basahuntz bilddurtixaren zalapartia; ganadu-arranen dulun-duluna, ardixen bee negartixa, suba zaharraren txistua, belaan garrazi latza, zozuaren txortxorra, txori kantari askoren txiotxo alaixa, errekatxuen pol-polla, zuraitz ostruen pir-pir biguna, eltxo gogaikarrixen zunburruntxua... berba gutxittan esateko, izakixak berez dittuen eta mendi basuetan diran ganadu, ipizti eta sortutako gauza danen akabera bageko soiñu txiki eta haundi, isil eta bizi, garratz eta gozo, mingarri eta ezititsu, pozkor eta ikaragarritzko danak. Berihela igarten otsan Joanesek nundik etorren soiñua, eta baita be esango eben argi eta garbi zer zan eta nun eguen soiñu bakoitzaren jatorri izkutua.

Berbategixa: *azpantar,-ra* = polaiña,-ia; *justui,-xa* = trumoe,-ia; *horei,-xa* = ekaitz,-a

Txomin Agirreren 'Garoa' nobelako zatixa, moldautakua.